

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresaren proiektua aurrera ateratzeko, garrantzitsua da gure esku ditugun funtsezko baliabideak modu argi eta erraz batean definitzea. Baliabide horiek proiektuaren aurrerapen oinarria izango dira. Hori kontuan izanda, 4 baliabide mota desberdin aztertuko ditugu: baliabide fisikoak, baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta baliabide intelektualak. Atal bakoitzean ikusiko dugu nola laguntzen duten baliabide horiek gure proiektuaren aurrerapenean eta zein hobekuntzak egiten duten momentu motzean.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak azalduko ditugu. Baliabide hauek beharrezkoak dira gure produktua sortzeko eta probatzeko. Ile-lehorgailu isilaren funtzionamendua ulertzeko eta hobetzeko erabiltzen dira. Diseinatzaile industrialek eta marketinean lana egiten dutenaren lana, gure produktua modu edo itxura erakargarri batean aurkeztea da.

Ondoren, dirua behar dugu gure proiektua hasiera emateko. Gure kasuan 25.000 euro behar ditugu hasieran. Beharrezkoa bada, bankuan mailegu bat eskatuko dugu horrela, dena ondo juaten da eta ez da beharrezkoa ezer atzerateko. Enpresa sortzeko paperak eta tramiteak ere ordaindu behar dira.

Jarraitzeko, giza baliabideak oso garrantzitsuak dira. Taldeko kide bakoitzak lagunduko du lanean. Batzuek diseinuan, beste batzuk marketinan eta besteak antolaketan. Guztion artean proiektua aurrera eramateko asmorekin.

Azkenik baliabide intelektualak gure proiektua babesteko dira, honen barruan marka-izena eta logotipoa sartzen dira. Produktuaren diseinua babesteko bisibilitatea ere garrantzitsua da. Horrela, besteek ezin dute gure ideia kopiatu. Marketin digitalak produktua ezagutarazten lagunduko du.

